

## Literaktumek eta Telefónica Fundazioak *Artea komikigintzan* aurkeztu dute: mundu mailako margolaritzako obra handiak, 70 komikilari eta ilustratzaile garaikideen ikuspegitik

### OKENDO KULTUR ETXEA

2021eko azaroaren 19tik 2022ko urtarrilaren 29ra.

#### Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 10:00-14:00 / 16:00-20:30

Larunbatetan eta zubietan: 10:00-14:00 / 16:30-20:00

Egun hauetan, arratsaldez itxita: abenduaren 21ean, 24an eta 31n, eta urtarrilaren 5ean eta 19an

**Literaktum letren jaialdiaren barruan zabalduko den erakusketa Okendo Kultur Etxean egongo da ikusgai 2022ko urtarrilaren 29ra arte.**

Erakusketak 200 obra baino gehiago ditu, eta, horien artean, artista gipuzkoarren bi obra ikusi ahalko dira, lehenbizikoz, Okendo KEn: Ángel Alonsoren obra bat, Pieter Brueghelen *Babelgo dorrea* lanean oinarritua dagoena eta erakusketa honetarako bereziki sortu duena, eta *Museo Bilduma* komikiaren orrialde bat, Iñaki Holgado eta Harkaitz Cano komikilariarena.

Bederatzigarren artearen 70 marrazkilarik eta artistek baino gehiagok mundu mailako margolaritzako obra handiak berrinterpretatu dituzte **Artea komikigintzan** erakusketan. Asier Mensuro historialari irundarrak egin ditu komisario-lanak **Telefónica Fundazioak** ekoiztutako erakusketa honetan.

#### KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL

Konstituzio plaza 1 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 483 840 E. [kulturekintza@donostia.eus](mailto:kulturekintza@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)

Hain zuzen ere, goizean hedabideen aurreko aurkezpenean egingo duen modura, **Asier Mensurok bisita gidatua egindo du azaroaren 19ko arratsaldeko 17:00etan**. Sarrera librea izango da aforoa bete arte.

### **Artearen eta komikiaren arteko harremana:**

Jakina da pop artearen margolari handiek lotura handia dutela komikiaren ikonografiarekiko, baina kontrako bidea ez da hainbeste aztertu, eta ezusteko handiak gordetzen ditu. Erakusketak islatzen du nola inspiratzen den bederatzigarren artea deritzona margolari handien maisulanetan, eta haiek nola omentzen dituen binetetan eta ilustrazioetan. Komikilariek sortutako pintura-obra handien ikuspuntuek begirada bakarra eta desberdina ematen dute artearen historiaren inguruan. Eta era oso desberdinean egiten dute: batzuetan, marrazkilariak ahalik eta modu fidagarrienean birsortzen du pintura-obra. Beste batzuetan, koadro baten konposizioa imitatzen du, eta bere sorkuntzako pertsonaiekin ordeztzen ditu figurak. Badira aipamen estilistikoak ere bai: margolari jakin baten margotzeko teknika eta bere kolore bereizgarriaren eta argiaren erabilera kopiatzen dira. Azkenik, pieza batzuetan, pintura-obraren ikonografia eta esanahia oinarri hartuta, komikilariek errealitate garaikidearen alderdiren bati buruz hausnartzen du, eta, hala, agerian uzten du artearen historiako maisulanak margotu ziren unean bezain bizirik daudela gaur egun.

Gainera, arte-zentroen eta komikiaren arteko harremanean aurrera egiten du erakusketak. Bereziki azken hamarkada eta erdian biziagotu zen harreman hori, Louvre museoaren ekimen batek bultzatuta. 2005ean, Fabrice Douar Louvre museoko editorearen eta Sébastien Gnaedig Futuropolis argitaletxeko zuzendariaren eskutik, komiki bilduma bat sortu zen, museoa eta bere funtsak zituen historiaren elementu protagonistatzat.

Beste museo batzuek, halaber, segituan ulertu zuten komikiak aukera ugari eskaintzen dituela arte-zentro handien edukiak modu desberdin eta ezezagun batean zabaltzeko. Adibidez, Orsay museoak, Futuropolis argitaletxearekin ere bai, bere komiki-bilduma propioa sortu zuen 2014an, tren-geltoki mitikoan eta biltzen dituen arte-bildumetan girotua.

Ondoren, beste museo batzuk ere hasi ziren komikiak editatzen eta binetaren artearen munduarekin lotutako erakusketak programatzen. Telefónica Fundazioak *Paco Roca. Dibujante ambulante* erakusketa programatu zuen 2014an, Madrilen duen espazioan; hurrengo urtean, *Artea komikian* inauguratu zen bere aretoetan, eta, handik, Espainiako beste museo batzuetara zabaldu zen. Erabaki horrekin, komikiari merezi duen estatusa emateko beharrari erantzun zitzaion, eta Telefónica Fundazioak apustu aitzindaria eta egokia egin zuen.

### **Telefónica bilduma komiki bihurtu da:**

*Artea komikian* erakusketarekin, Telefónica Fundazioak bat egin du ekimen horiekin; izan ere, bere ondare artistikoko pieza onenetako batzuen bertsio libreak eskatu dizkie ilustratzaile eta komikilari entzutetsuei. Bestek beste, Javier Olivaresek (Espainiako Komiki Sariaren irabazlea 2015ean) eta Santiago Garcíaak Joaquín Torres Garcíaen “*TBA*” *konstruktiboa zuri-beltzean* (1933) obrari buruz duten ikuspuntua eman dute.

Mamen Moreu marrazkilariak hiru ilustrazio egin ditu honako hauek omentzeko: Pablo Picassoren *Margolaria lanean*; Antoni Tàpiesen *Mihizadura eta grafitia*, eta René Magritteren *Goi-mailako gizartea*. Juan Berriok, bestalde, María Blanchardek *Konposizio kubista* (1918) obra margotu zueneko garaiari buruzko informazioa bildu du, eta orrialde bakarreko komiki bat sortu du, Francisco Ibáñezek *13, Rue del Percebe* komiki mitikoaren egitura kopiatuta.

Horrez gain, egile hauek ere egin dituzte Telefónica bildumako piezen bertsioak: Ana Galvañek bi ilustrazio egin ditu, Roberto Mattaren *Morfologia psikologikoa* lanean eta María Blancharden *Natura hil kubista* lanean inspiratuta; Tyto Albak Juan Grisen *Edalontziak, egunkaria eta ardo-botila* obraren eta Paul Delvauxen *Deia* obraren bi bertsio egin ditu, eta Teresa Valerok, Juan Grisen *Abeslaria* obraren irudi bat.

### **Artearen historian inspiratutako beste komiki batzuk:**

Aipatutakoekin batera, komikilari garrantzitsu hauek eta beste asko ere egongo dira erakusketan: Milo Manara, Rubén Perellejo, Don Julio, Ángel de la Calle, Daniel Torres, Luis



Durán, Arthur Suydam, Álvaro Ortiz, Enrique Ventura, Clement Oubrierie, Gin, José Luis Martín, Alfonso Azpiri, Raúló Cáceres eta Paco Roca.

Telefónica Fundazioak Madrilen duen espazioan egon zen ikusgai lehenbizikoz (2015ean eta 2016an), eta, ordutik, 11 aldiz mugitu da Espainiako estatuko zentroetan zehar.

**Informazio gehiago:**

TELEFÓNICA FUNDAZIOA: Eva Solans [eva.solansgalobart@telefonica.com](mailto:eva.solansgalobart@telefonica.com) 676 47 05 87

**KULTUR EKINTZA ACCIÓN CULTURAL**

Konstituzio plaza 1 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 483 840 E. [kulturekintza@donostia.eus](mailto:kulturekintza@donostia.eus)  
[www.donostiakultura.eus](http://www.donostiakultura.eus)